

# **ZAZPI SENIDEKO**

**ZUZENDARIA: ANDER LIPUS**

**TESTIGANTZAK: LANDER GARRO  
GAIZKA SARASOLA  
LORENTXA BEYRIE  
AITZARO ARANO  
ARGI PERURENA  
UNAI ITURRIAGA  
EÑAUT CASTAGNET**

**AKTOREAK: XIMUN FUCHS  
MANEX FUCHS**

# AURKIBIDEA

<b>HARIAREN SINOPSIA</b>	<b>03</b>
<b>ANTZEZLANA</b>	<b>05</b>
<b>FITXA ARTISTIKOA</b>	<b>07</b>
<b>BITARTEKARITZA</b>	<b>08</b>
<b>EGUTEGIA</b>	<b>10</b>
<b>LAGUNTZAILEAK</b>	<b>11</b>

---

# HARIAREN SINOPSISIA

*Yo tengo tantos hermanos,  
que no los puedo contar,  
en el valle, la montaña,  
en la pampa y en el mar.*

*Cada cual con sus trabajos,  
con sus sueños cada cual,  
con la esperanza delante,  
con los recuerdos, detrás.*

*Yo tengo tantos hermanos,  
que no los puedo contar.*

**(Atahualpa Yupanqui)**

## **IZENBURUA**

ZAZPI SENIDEKO

## **SINOPSISIA**

Anaitasunarena, txikitatik eraikitako laberintoa da, ihesbiderik gabekoa, lotura definitibo bat. Odolekoak ala biziak eskainitakoak, senideak norbanakoa osatzen du. Baina nola aritu anaia, ahizpa, neba edo arreba ebatsia izan zaigunean? Presondegiak, auto istripuak edo gaixotasunak bete ezinezko hutsunea sentiarazten duenean, nola dirau gurea dugun GU horrek bizirik?

Bi aktore. Bi anaia. Eta zazpi istorio antzerkira ekarriak.

# HARIAREN SINOPSISIA

## AZALPENA

Anaitasunaz mintzatzea paradoxa hutsa da, zeren biki gehienek garbi adierazten duten bezala, anai edo ahizpen artean ez da hitz egiterik elkar ulertzeko. Beraz, gure intimitatean barrena murgiltzeko aukera paregabea dugu. Azken finean, denak gara anaitasunaren espezialistak eta denok badugu horri buruz zer esan. Baina antzerkiak, gure ustez, azaleko errutinatik haratago dagoen zerbait aztertzeko aukera emaiten du. Zeri deitzen diogu anaitasuna? Odolari? Laguntasun deskriba ezin horri? Elkartasunaren sinbolo sendoenari?

Deskribapen logika batean ito gabe, anaitasunaren bizipenak eta aztarnak ugariak eta osagarriak direla ezin uka, eta haren aurpegi ezberdinak argitan eman nahi ditugu, bere perfil atsegin zein lotsagarrietan. Harreman hautsi-ezin hori, jeloskortasunean, ausentzian, traizio txikietan, edo gaizki-ulertuetan josi da. Eta hala ere, anaia, arreba, ahizpa, neba, ez da nolana kontsideratzen. Bada zerbait definitiboa. Errez galtzen ahal da senidetasunaren sekretuzko pasabideetan eta ez dago hortik ateratzerik, heriotzean ez bada. Kain eta Abelen kasuan salbu, beti defendatuko dugu anaia, arreba, ahizpa, neba, fede txarrez izanda ere. Odolekoa ala biziak eskainitakoa, senidetasuna haurtzaroan eraikitzen da eta ezin da hezkuntza ulertu, anaitasuna aipatu gabe. Anai-arrebarik edo ahizpa-nebarik ezean ere, anaitasuna beti izango da gizabanakoaren nortasuna finkatzen duen zimendua.

Baina zer egin anaia, arreba, ahizpa edo neba ebatsia izan zaigunean? Presondegiak, auto istripuak edo gaixotasunak, bete ezinezko hutsune ilun bat etengabe sentiarazten duenean, nola egon gaitzke gurea genuen GU horretan? Edozeinen lehen hitzak "ama", "aita" eta "ni" izan ohi dira. Ondotik, anaitasunarekin bat sortzen da GU kontzeptua. Parekorik gabe, ez naiz "gu" izan ahal, "ni" horretan mugatua nago, ni bakarrik. "Gu" hori elkartasunean sortzen da, minean, betebeharrean, zailtasunean, maitasun solasean, kezkan, biziaren bide latz zein ederretan.

## ANTZEZLANA

Jasan beharreko dominazioak edo hartu beharreko armek ere egiten gaituzte anai : gudari edo esklaboen artean, denak gara senide. Agian, horregatik afrikar jatorria duten ipar amerikarrek elkarri "brother" deitzen diote, edota Cuban "hermano". Horren adibide hurbilagoa dugu bi euskal erresistente eta antzerki idazle ziren Monzon eta Lartzabaljaunek sortutako Anai-arteak.

Hots, haren faltatik mintzo bagara ere, anaitasuna gorestea dugu xede.

Anaitasunaren aurpegi kontraesankorrak kontatzeko, lagun ezberdinei obra honen zati bat edo fragmento bat zirriborratzea eskatu diegu. Lander Garro, Gaizka Sarasola, Lorentxa Beyrie, Aitzaro Arano, Argi Perurena, Unai Iturriaga eta Eñaut Castagnet dira gure antzezlanari ekarpena egin diotenak.

Hortaz, idazkera ugaria izan da. Bigarren idazkera eszenikoaren mamia, oholtzako lanetik abiatu dugu. Manex Fuchs eta Ximun Fuchs aktoreekin josi dugu, gure sena eta kaos honen logika segituz. Egitasmoa ez da kaleidoskopio edo patchwork bat aurkeztea. Zatika eta orden kontra intuitibo batean eraiki dugu gure dramaturgia hau. Fragmentazioa dela medio, bizi puxkak kontatzen ditugu, estilo edo erronka ezberdinekin, denak euskara batuan. Ahots ezberdinetatik mintzo dira pertsonaiak, izan gizon ala emakume, gazte ala heldu, bizi ala hildako. Hausturak eramaten du antzerkiaren erritmoa, bizian gertatzen diren istripuen irudikapen bat bezala.

Anaitasunaren intimitatean sartzeko, hurbileko harreman bat sortu nahi dugu ikuslegoarekin. Obra non hasten den oso argi ez balego, zeri eta zeini doakion egia edo gezurra, antzerkiaren eta ikuslegoaren muga fisikoa hautsi, urtu, edo eraldatu nahi dugu. Antzerkia, erupzioz eta zatika sortzeko asmoa dugu, hutsuneari bere lekua emanez, ikuslegoak bere parteak izan dezan, bere irudimena ere aktore izan dadin. Musika eta bideoa bidelagun ditugu, esan ezinek doinua eta espazioa eskertzen dutelako.

## ANTZEZLANA

Obra honen idazkera abiatzeko erreferentziako lehen hiru lanak honakoak dira: Dostoievskiren Karamazov Anaiak eleberria, Atxagaren Bi Anai eleberria eta Thomas Vinterbergen Submarino filma. Hiruretan, protagonismoa anaitasunak hartzen du eta haren bidetik fedea, zalantza, arrazoia, traizioa, natura, gizatasuna eta lotura korapilatsuak lantzen dira.

Tragediak batzen ditu anai istorio horiek, baina denek eromenaz gain arintasun zerbait dute anai arriben artean, erabat ulergarria dena, izan ere, pertsonaien arteko harreman hori haurtzaroan errotu zen. Hortaz, ezer ez da nahikoa serioa, eta aldi berean, dena da hil ala bizikoa.

Erreferentzia sendo horiekin joan gara aportazio berezi eta pertsonala egingo diguten idazle, poeta, bertsolari, margolari eta zinegileak ikustera. Denek faltan botatzetik, pozetik eta esperantzatik hitz egiten dute.

Denek dute zer esana.

Eta denek ematen digute zer antzeztua.

## FITXA ARTISTIKOA

<b>Zuzendaria:</b>	Ander Lipus
<b>Aktoreak:</b>	Ximun Fuchs Manex Fuchs
<b>Testigantzak:</b>	Lander Garro, Gaizka Sarasola Lorentxa Beyrie Aitzaro Arano Argi Perurena Unai Iturriaga Eñaut Castagnet
<b>Idazkera aholkularia:</b>	Igor Elortza
<b>Argiztapen diseinua:</b>	Josep Duhau
<b>Eszenografia:</b>	Josep Duhau
<b>Bideoa:</b>	Eñaut Castagnet
<b>Jantziak:</b>	Marodi Sorkuntzak
<b>Musika aholkularia:</b>	Asier Ituarte
<b>Irudia:</b>	No Media Estudio
<b>Argazkiak:</b>	Eñaut Castagnet
<b>ekoizpena:</b>	Iasone Parada, Elorri Etcheverry, Xabino Alkorta, Katti Biscay, Elise Robert Loudette
<b>Banaketa:</b>	Irantzu Azpeitia Elorri Etcheverry





# BITARTEKARITZA

Ikuskizunaren alboan egingo diren bitartekaritza proposamen ezberdinak nahi bezala deklinatu daitezke. Proposatuko diren ekintzak, kolegio, lizeo, instituto edo fakultateko ikasleei egokituko zaizkie, baita ikusle, amateur zein profesionaleri ere.

Sorkuntza egonaldietan zehar, edo hedapen une batean, gure taldearen lan giroaz eta erronka artistikoaz jabetzeko aukera izango da.

## 1) OHOLTZA GAINEAN:

Sorkuntzaren errepika batean parte hartu daiteke ikusle berezi gisa. Bertan, jokoa, argia, soinua, eta musikaren egituratze lanaz jabetzen ahal da. Lan taldearentzat, momentu hori saiakera une bat izan daiteke, publikoaren lehen oharrak jasotzeko posibilitatea. Iritzien trukaketarako denbora zehatz bat antolatzen da, lan artistikoaren giltzak edo irizpide teoriko eta konkretuak partekatzeko.

## 2) ELKARRIZKETAK:

Hedapen edo sorkuntza lekuetatik kanpo, elkarrizketa une berezituak antolatzen ahal dira aktoreekin edo zuzendariarekin, obraren atal zehatz baten aztertzeko: nola azaldu intimoa den zerbait publiko aurrean, norbere hauskortasuna ukatu gabe? Zer da anai, ahizpa edo arreba bat? Zerk finkatzen du filiazio oinarri bat? Odolak? Sentimenduek? Baina elkarrizketa horietan, antzerkiari lotuak diren galdera oso sinpleak ere jorratzen ahal dira : idazleak ugariak direnean, nola lotu idazkera eta zuzendaritza? Noiz hasten da antzerkia? Nola antolatu formatu ttikiko antzerki batentzako hedapena? Zer berezitasun eskatzen du euskaraz antzezteak? Zer da "zuzendari" bat? Zein da teknologia berriek antzerkiari emaiten ahal dioten ekarpena?



# BITARTEKARITZA

## 3)EDUKIAK

Ikasleekin eramandako elkar lana bitartekaritza sakon baten esparruan integratzen denean, gure ikerketarako baliatu ditugun dokumentu zein filma edo liburuen zerrenda antolatu eta aukeratu bat pasaraziko genuke. Honela, jatorrizko dokumentazio edo fikzioetatik argitasun bat sor daiteke, sorkuntzak dakarren erronka eta prospektiba irudikatzeko moduan.

## EGUTEGIA

### Egonaldien egutegia:

- Egonaldia 2017ko urrian. LUHUSO.
- Egonaldia 2017ko azaroan. ZUMAIA.
- Egonaldia 2017ko abenduan. DONAZAHARRE.
- Egonaldia 2018ko urtarrilean. HENDAIA.
- Egonaldia 2018ko otsailean. BESKOTITZE.
- Egonaldia 2018ko martxoan. LARTZABALE.

### ESTREINALDIA, 2018ko martxoak 8, Lartzabalen.

- Martxoak 8 & 9 Lartzabale, Hameka Euskaraz
- Martxoak 18 Eskoriatza
- Martxoak 27 Kanbo, (ikasleentzat)
- Martxoak 28, 29, 30 Baiona, (ikasleentzat + publikoa)
- Apirilak 2 Aulesti, ADEL 2018
- Apirilak 15 Baigorri, Kulturaldia
- Apirilak 27 Hendaia,
- Apirilak 28-29 Donostia, Gazteszena
- Maiatzak 3 Uztaritze, Elepika festibala
- Maiatzak 11 Azpeitia
- Ekainak 1 Zumaia
- Ekainak 2 Ezpeleta, Jokoz kanpo festibala

### KONTAKTUA:

Axut!  
(0033) 668 192 397  
ximunfuchs@gmail.com



ArteDrama:  
(0034) 615 779 511  
info@artedrama.com



Le Petit Théâtre de Pain:  
(0033) 630 893 982  
leptdp@gmail.com



# LAGUNTZAILEAK

Zazpi senideko ondorengo eragileek sustengatzen dute:



- EJ GV



- Eke



- Euskal Hirigune Elkargoa



- Hendaia (Mendi Zolan)



- Zumaia



- Hameka



- Baxe Nafarroako  
Herri Antzokia



- Pyrenees Atlantiques



- Région Nouvelle-Aquitaine



- Ministère Culture



- Bizkaia